

Egia esan, gure literaturaz era hortan lan sakon bat, hutsik gabekoa behinik-behin, egin ahal izateko, lehendabizi ekonomiaren historia on baten premia dugu; zeren, etxekoek eta kanpokoek egin dituzten saiaerak (orain artekoak) oso urruti daude historiako errealtateetatik. Historia bera behar bezala ez ezagutzeagatik, zabalkunderako eginak diren liburu jeneraletatik aparte, sortu digu lan askoren oinharri sendorik eza.

Historiako hutsune horren adigarri idatzi nuen «Anaitasuna» bertan 219 zenbakian (1971-9-30), lehengo kritikaren jarraipenez. Hartikulu hortan, XVIII. mendeari buruz ari nintzen, baina XVI. mendea oraindik nabarmenago azatzen zaigu, Bizkai-Gipuzkoetan, ekonomiaren aldetiko aberastasun handietan.

Gainerakoan, gizarte-literatura aburuak, Patri Urkizuren *Literatura eta kritika* izeneko liburuan oinharrituak ditu nonbait. Hala dirudi. Eta liburu horren hutsik handiena, ez dakigu zergatik, gaurko eritzietaraino ez jarraitzean datza. Sozio-ekonomia bere soiltasunean begiratzetik, ekologia zientzia gizarteari aspalditik erantsia ez balego bezala. P. Urkizu, Lukács eta Sartre-ra arte heltzen zen, baina ordurako Northrop Frye-ren aburuak ere aski ezagunak ziren. Horregatik, azken lotura gabe, atzeraegi gelditzen zen Urkizuren liburua, argitaratu zen garai bertan.

Gauzak ondo egitea beti da nekeza. Hala ere, emaitza onik badakarki Ibonen liburuak.

J. S. M.



*MITXELENAREN lan hautatuak.* Idazlanen aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak. Eraskina liburu honi Mitxelenak berak ezarria. Etor. Bilbao, 1972.

*Mitxelenaren lan hautatuak* izeneko bilduma hau, azken orduan egileak liburu honi ipini dion eraskina ezik, aldizkarietan argitara-

tutako Inaak dira, eta batez ere EGAN aldizkari honetan argitaratuak. Sakabanaturik zituen artikulua, txosten, kritika eta abar, liburu batean bildurik jartzean, Patxi Altunari esker, begien aurrean jartzen digu gure egunhotan euskal literaturan asma ditekean libururik aberatsena. Euskara ikasteko ez-ezik, tradizio eta egungo kultura gai ezaugarrien bilduma aspergaitza da. Gainera, bere hizkuntzaren azterketa jakingarri bat egiten dio Altunak liburuaren lehen parteari.

Ez gara hemen sartuko aburu zehatzik ematera, zenbait aldizkarian zenbait idazlek emanak dituzte, nik eman nezazkean baino hobeak. Irakurri ditugun aipagarrien arteko aipagarrienetako bat Larresorok «Zeruko Argia»ren 484 zenbakian (1972ko ekainaren 11koa) izango da noski.

Honela zatitzen dira liburuaren parteak: Orri azpiko oharrez hornituriko idazlanak (P. Altunaren oharrez), txostenak, elkar hizketak, gure klasikoak, saioak, hil ondokoak, hitzaurreak, filmak, eta liburuen iritziak.

Liburu honek, egilearen jakituria bere zabalera eta sakonera guzian adiarazten digu, aparteko nabarmentasunez agerrarazi ere. Bere emaitza aberatsak, batez ere egungo pentsaeraren mundutik begiratuaz, euskal literatura mailaz gora darama.

Altunaren hitzaurre labur bat du 404 orrialde dituen liburu mardul honek.

J. S. M.

